

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Aplikazioa sortzeko, lehenik eta behin garatzaileak behar dira, aplikazioa martxan jarriko dutenak, bestetik, diseinatzaileak, erabiltzaileei aplikazio erakargarria eta erraza eskaintzeko.

Halaber, aplikazioak ondo funtzionatzeko, datuak gordetzeko eta erabiltzaileen puntu-sistemaren jarraipena egiteko, hodeiko zerbitzuak eta ordenagailu indartsuak behar dira. Tokiko denda eta markekin elkarlana ezinbestekoa izango da, sariak edo deskontuak eskaintzeko.

Gainera, aplikazioa ezagutarazteko marketin-kanpainak eta erabiltzaileek dituzten zalantzak edo arazoak konpontzeko laguntza-talde bat ere antolatu behar da. Segurtasun-sistema sendoa ere beharrezkoa izango da, erabiltzaileen datuak babesteko.